

Azaroak 25 Plaza

Azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Eguna da eta Dominikar Errepublikan, 1960ko azaroaren 25ean, Leonidas Trujilloren diktadurapean hil zituzten Mirabal ahizpen omenez ospatzen da egun hau.

1950eko hamarkadan, Minerva, Maria Teresa eta Patria Mirabal ahizpak tinko borrokatu ziren Dominikar Errepublikan Leonidas Trujillo diktadorearen erregimenaren aurka. Behin baino gehiagotan espetxeratu, bortxatu eta torturatu zituzten, baina, hala eta guztiz ere, ez zuten etsi euren borrokan.

1960ko azaroaren 25ean senarrak bisitatzera joan ziren Minerva eta Maria Teresa, baita Patria ere. Espetxetik etxerakoan, Inteligentzia Militarren Zerbitzuko heriotza-eskuadroi batek gelditu zituen errepidean, auto batera igoarazi eta hil egin zituzten hiruak.

1981ean izendatu zuten, Mirabal ahizpen omenez, azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Estrainakoz Latinoamerikako lehenengo topaketa feministetan izan zen eta, ondoren, 1999. urteko abenduaren 17an, Nazio Batuen Erakundeak “Emakumeen kontrako bortizkeria ezabatzeko Nazioarteko Eguna” izendatu zuen.

Ordutik indarkeria matxistaren kontrako aldarri ozena bihurtu da eguna. Indarkeria matxista generoan oinarritutako biolentzia-ekintza oro da, kalte fisiko, sexual edo psikikoak sortu edo gertatzeko bidean jartzen duena. Biolentzia horren muturreko adierazleak argi ikusi eta salatzeke gai garen arren, jendartean bada egin beharra oraindik ere adierazle lausoagoak diren horiek detektatu eta haiei aurre egiteko.

Hernani ez dago indarkeria matxistatik salbu. Gauden tokian bertan, indarkeria matxistak eraildako Txaro Romanen omenez mugimendu feministak morez margotutako jarlekua du. Txarok plaza honetan bertan eman zuen bere azken hatsa, baina izan dadila hura indarkeria matxistaren aurkako borroka aldeko ufada.